# *Irakasle-tutorea*



# Aurkibidea

**Orrialdea**

**BETEKIZUNAK** ........................................ 3

**ATARIKOA** ........................................ 4

**IKASTURTEAK - IKASTEGIAK** ........................................ 4

**IKASTEGIARI BURUZKO DATUAK** ........................................ 5

**IKASTEGIAREN ARAUDIA** ........................................ 5

**PRAKTIKAK** ........................................ 5

**TXOSTENAK - MEMORIA** ........................................ 9

**PRAKTIKEN TUTORIZAZIO ZIURTAGIRIA** ........................................ 10

**ALBISTEAK** ........................................ 10

Aurkibide alfabetikoa ........................................ 11

## BETEKIZUNAK

- Sistema Eragilea: Windows XP SP3, Windows 7, Macintosh, Linux.
- Windows XPn, Internet Explorer nabigatzailea 7. bertsiotik aurrera; Firefox-en 3. bertsiotik aurrera; Google Chrome-n 35.0 bertsiotik aurrera eta Safari-n 5.17 bertsiotik aurrera.
- Windows 7-n Internet Explorer nabigatzailea, 9. bertsioa (32 biteko arkitekturak); Firefox-en 23.etik aurrera; Google Chrome-n 35.0 bertsiotik aurrera; Safari-n 5.17 bertsiotik aurrera.
- Macintosh-en hauek exekutatzeko bakarrik: Web HTML (No Oracle Form) profilak, Firefox nabigatzailea 23.etik aurrera; Safari-n 7. bertsiotik aurrera.
- Linux-en hauek exekutatzeko bakarrik: HTML Web-a(No Oracle Form), Firefox nabigatzailea 23.etik aurrera.
- Java, JRE 6 Update 16-etik JRE 7 Update 45-era (32 bit).
- Word 2007.
- Acrobat Reader (8.etik 11.era).
- Izenpe User 3.2.1.0 kit-a

## ATARIKOA

Dokumentu honetan, borondatezko praktikak kudeatzeko modulu berriak irakasle-tutore gisa identifikatutako erabiltzaileari eskainiko dion funtzionaltasuna deskribatzen da.

Irakasle-tutorea UPV/EHUko irakasle bat izango da. GAUR aplikazioan "BP irakasle-tutorea" profil berri bat agertuko da. Aukera hori sakatzean, borondatezko praktiken kudeaketa-modulura konektatuko da. Lehenengo pantailan, ikastegia eta ikasturte akademikoa aukeratu beharko dira.




Pantaila horretan, elkarlanean aritu nahi dugun ikastegia eta ikasturtea aukeratu behar dira. Ikasturtea aukeratzean, aplikazioak honen antzeko pantaila bat irekiko du. Zentroko PPAk (praktiken programen arduradunak) irakasleentzat ohar bat txertatu badu aplikazioak onartu beharreko leihatila bat irekiko du, aurrera jarraitu ahal izateko.




## IKASTURTEAK - IKASTEGIAK

Aukera honen bitartez, beste ikastegi edo/eta ikasturte akademiko batzuetara sartzeko bidea ematen du aplikazioak. Menuko aukera hori sakatzean, modulura sartzean ateratako pantaila bera erakusten du aplikazioak.



## IKASTEGIARI BURUZKO DATUAK

Menuko aukera honen bidez, ikastegiko arduradunak borondatezko praktiken kudeaketari buruz sartutako deskribapena erakusten du aplikazioak.




## IKASTEGIAREN ARAUDIA

Menuko aukera honen bidez, ikastegiko arduradunak sar dezakeen esteka erakusten du aplikazioak. Esteka horren bidez, web-orri batera iritsiko gara, eta web-orri horretan, ikastegiak borondatezko praktikak kudeatzeari dagokionez jarraitzen duen araudia edo prozedura deskribatzen da.




## PRAKTIKAK

Menuko aukera honen bidez, irakasle-tutoreari lotutako esleipenen zerrenda erakutsiko du aplikazioak. Pantailaren goiko aldean, esleipen horiei buruzko bilaketak egiteko aukera eskaintzen da.




Esleipen bakoitzeko, honako datu hauek eskuratu ahal izango ditugu:

- **Praktikaren xehetasunak** (lehenengo zutabeko geziak):

Gezietan sakatzean, *pop-up* bat irekitzen da, eta esleipenaren datu orokorrak bistaratuko dira bertan.




- **Instruktorea.** Gezien bidez, praktikaren instruktorea kudeatzeko bidea ematen du aplikazioak.

  Botoi hori sakatzean, aplikazioak honen antzeko pantaila bat bistaraziko du eta pantaila horretan, instruktore baten aldaketa edo/eta alta kudeatu daiteke.







BERRIA sakatzean, hainbat kasuistika kudeatu daitezke:

- Enpresari lotutako instruktore bat lotu nahi da, sisteman erregistratutakoa.
- Enpresan erregistratu gabe baina sisteman erregistratuta dagoen instruktore bat lotu nahi da.
- Sisteman erregistratu gabe dagoen instruktore bat sartu nahi da.

[BERRIA] sakatzean, aplikazioak leiho bat erakusten du; leiho horretan, enpresari lotutako eta sisteman erregistratutako instruktoreak zerrendatzen dira, erabiltzaileak horietako bat aukera dezan (edo horiei buruzko bilaketak egin ditzan).




Zerrendako pertsona bat hautatu daiteke, eta nahi duguna aurkitzen ezean, [BERRIA] sakatuko dugu leiho honetan.

Aplikazioak NAN zenbakia, sartu nahi den pertsonaren jaiotze-data eta dokumentu mota eskatzen ditu. Pertsona hori sisteman dagoen aztertzen du. Sisteman badago, lotutako datuak emango ditu. Sisteman ez badago, ordea, inprimaki bat agertuko da sartu beharreko datuekin, praktika instruktoreari lotu ahal izateko.

- **Ebaluazioa.**




Irakasle tutoreak praktika bakoitzeko ebaluazio bat osatu beharko du non hizkuntzaren eremua nahitaezkoa izango den zentroko kudeatzaileak edota enpresak eremu honetan “elebidun” edota “edozein” grabatu badute.

Praktika bat ez ebaluatzeko inguruabarrak badaude, horren arrazoia adierazi beharko da “Praktikari buruzko iruzkinak” atalean.

“Eskuratutako ezagutzak, trebetasunak edo gaitasunak” atala, ebaluatu ez bada, lehenetsitako testu batekin osatuko da ebaluazioa amaitzerakoan.

Ezinbestekoa izango da “Aldeko ebaluazioa”n BAI markatzea ikasleak egindako praktikak egiaztatzen dituen ziurtagiria eskatu ahal izateko, eta praktikari erreferentzia egitea Tituluaren Gehigarri Europarrean eta ikaslearen ziurtagiri akademikoan.

- **Tutoretzak**

Aukera horren bidez, tutoretzak bistaratuko dira. Tutoretzak praktika bakoitzari lotuta daude. Sistemak, berez, esleipen bakoitzari ikastegiko arduradunak zehaztutako tutoretzak (tutoretzen protokoloa) lotzen dizkio (tutoretzen protokoloa). Irakasle-tutoreak tutoretza berriak sartu ahal izango dizkio esleipen bakoitzari.







Ikastegiko arduradunak txertatutako tutoretzak (protokolotik) ezingo dira ezabatu. Irakasleak berak sartzen dituenak, berriz, bai.

ikonoen bidez sartuz, ikasleen hitzarmena eta curriculuma eskuratu eta inprimatu daitezke.

## TXOSTENAK - MEMORIA

Atal honen bidez, irakasle-tutoreak ikaslearen memoriarako edo/eta instruktorearen txostenerako sarbidea izango du. Menuko aukera hau sakatzean, aplikazioak honen antzeko pantaila bat erakutsiko du:




Goiko aldean, tutoretzen dituen praktiken gaineko iragazkiak aplikatu ahal izateko eremuak erakusten dira. Beheko aldean (BILATU sakatu ondoren), iragazki multzo hori aplikatzearen emaitza agertuko da. Praktika bakoitzeko, irudi bat agertuko da: gorriz, txostena bete gabe

badago, eta berdez, txostena beteta badago. Inolaz ere ezingo du txosten hori aldatu, baina beti kontsultatu ahal izango du.

## PRAKTIKEN TUTORIZAZIO ZIURTAGIRIA

Menuko aukera hori sakatzean, amaituta dauden praktiken zerrenda bistaratuko du aplikazioak. "Eskatu ziurtagiria" botoia aktibatuta egongo da sortze-prozesuan ez badago. Ziurtagiriak eskatu eta sortu ahal izango dira, ikasturtea itxita egon arren. Ziurtagiriaren eskaera ikastegiko arduradunari iritsiko zaio, eta hark kudeatuko eta bideratuko du. Ikaslearen ziurtagiria ere sortu ahal izango du "Ikaslea" zutabearen ondoan dagoen ikonoa sakatuz.

## ALBISTEAK

Atal honen bidez, irakasleari erakusten zaizkio ikastegiko arduradunak rol horrek eta/edo erabiltzaile guztiek bistaratzeko sisteman txertatu dituen borondatezko praktikei lotutako berriak.



## Aurkibide alfabetikoa

**Orrialdea**

ALBISTEAK ... 10
ATARIKOA ... 4
BETEKIZUNAK ... 3
IKASTEGIAREN ARAUDIA ... 5
IKASTEGIARi buruzko DATUAK ... 5
IKASTURTEAK - IKASTEGIAK ... 4
PRAKTIKAK ... 5
PRAKTIKEN TUTORizazio ziurtagiria ... 10
txostenak - MEMORIA ... 9